

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

**2018. urtean Getxoko udalerrian enpleguaren sorrera sustatzeko enpre-tarako laguntzen udal-programaren deialdia eta oinarri arautzaileak. Diru-laguntza horiek enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren barnean kokatzen dira (2018ko ekainaren 20ko EHAA, 118 zenbakia).**

Getxoko Udalaren helburu nagusia tokiko garapenari bultzada ematea da jarduera ekonomikoa sustatuz. Horretarako, Getxolan, Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuaren eginkizuna da, «Getxoko tokiko garapena eta hazkunde iraunkorra sustatzea berrikuntza, ezagutza eta sareko lanaren bidez», eta honako hauen aldeko ekintzak garatzen ditu: enplegu-aukerak, enpresa-sarea sortu, hazi eta hobetzea, eta udalerriko bizitza dinamizatzea, horretarako, baliabide endogenoak eta kanpoko aukerak baliatuz.

Getxoko Udalak ezinbestekotzat jotzen du langabeen kontratazioa suspertuko duten ekintzak egitea, udalerriko enpresei diru-laguntzak emanez.

Laguntza horiek Getxoko Udalak sustatzen ditu, eta Lanbide-EEZ-ak finantzatuta daude 2018ko ekainaren 20ko EHAAn, 118 zenbakian, 2018rako argitaratutako Ebazpenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarenean oinarrituta.

Oinarri hauek diru-laguntza horien esparru orokorra arautzen dute.

**0. Araudi erregulatzailea**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa (EAO 2003ko azaroaren 18).
- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena (EAO 2006ko uztailaren 25).
- 2018ko ekainaren 13ko Ebazpena, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzak emateari buruzkoa (EHAA 2018ko ekainaren 20).
- Datuak babesteko erregelamendu orokorra (EB 2016/679).
- Otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenarena.

**1. Xedea**

Oinarri hauen xedea da arautzea 2 idatz-zatiko baldintzak betetzen dituzten langabeen lan-kontrataziorako laguntzak, 3 hilabetekoak edo gehiagokoak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrekoak.

Adierazitako laguntzen xedetzat jotzen dira 2018ko ekainaren 21earen eta abenduaren 31ren artean hasitako kontratuak.

Kontratuen gutxieneko iraupena 3 hilabete izango da. Edozein kontratazio-modalitatez formalizatu ahalko da, prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua izan ezik. Lan saio osoa izan behar da.

Kontratuen %40 emakumeentzat izango da.



## 2. Kontratu beharreko pertsonen baldintzak

Kontratu beharreko pertsonen honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta egotea.
- Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enpleguaren eskatzaile modura izena emanda egotea.
- Odolkidetasun edo kidetasuneko harremanik ez izatea bigarren gradura arte, titularrarekin edo gehiengo bazkideekin bizikidetzako unitate berberaren zati ez izatea eta ezta enpresa edo entitate onuradunaren gobernu-organoko kideekin ere. Ondorio horietarako, gehiengo duen bazkidetzat joko da kapital sozialaren %10 baino gehiago duen bazkide/akziodun edo parte-hartzailea izanik, borondate sozialaren osakeran benetako nagusitasuna duena.
- Ez da diruz lagunduko enpresa berberak langile bera kontratatzea, aurreko deialdiren batean diruz lagundu bada.

## 3. Onuradunak

3.1. Deialdi honetako onurak jaso ahalko dituzte enpresek, saltokiek eta profesionalek (beren forma juridikoa alde batera utzita), baita irabazi-asmorik gabeko erakundeek, elkarteek edo jarduera ekonomikoa duten fundazioek ere, ondorengo baldintza hauetako bat betetzen baldin badute:

- Entitatearen egoitza soziala Getxon egotea.
- Haien egoitza soziala Getxoko mugartetik kanpo egonda ere, kontratazioa Getxon kokatutako lantoki baterako egitea.

3.2. Entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte gainera, laguntza horiek jaso ahal izateko:

- 2. idatz-zatian jasotako baldintzak betetzen dituzten langabeak kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea.
- Enpresak edo entitateak ez daitezuten %25ean edo portzentaje handiagoan administrazio, erakunde edo erakunde publikoen mende izan edo sozietate-modura lotuta.

- Laguntza horien xede diren kontratazioak edo kontratazioek enpresa edo entitate onuradunaren plantillan igoera garbia ekartzea, kontratatutako pertsonak heldu aurreko 3 hilabeteetan enpresan zegoen batez besteko plantillarekin alderatuz.

Plantillaren igoera garbia kalkulatzeko, honako hau kontuan hartuko da: diru-laguntza eskatzen den kontratazio-egunearn alta emandako langileen batez besteko plantilla, kontratazio-egunaren aurreko hiru hilabeteetan alta emanda izandako langileen batez besteko plantillarena baino handiagoa izatea. Egoera hori egiaztatzeke, Gizarte Segurantzak egindako «alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren bi txosten» entregatu beharko dira; bata, kontratuaren egunaren aurreko hiru hilabetei dagokie, eta bestea, diru-laguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa da; horrekin batera, kontratazio-eguneko enpresaren lan-bizitzaren txosten bat.

- *Adibidea:* 2018ko abuztuaren 15ean egindako kontratu baten plantillako igoera garbia egiaztatzeke eman beharreko txostenak honako hauek izango ziren:

- Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2018ko maiatzaren 15etik 2018ko abuztuaren 14ra arte.
- Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2018ko abuztuaren 15etik 2018ko abuztuaren 15era arte. eta Enpresaren 2018ko abuztuaren 15eko lan-bizitzaren txostena.

- Kanpoan geratzen dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak: deialdi honetan eta aurreko hiru deialdietan pertsona horiek kontratatzeagatik enpresa berebean jadanik laguntza jaso dutenak.



- Getxoko Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzaileak erakunde horrekiko zerga betebeharrak egunean dituela

#### **4. Eskaera-epea eta eskaerak aurkezteko tokia**

Eskaerak oinarri hauen 5. idatz-zatian adierazitako nahitaezko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira, bai presentzialki, bai telematikoki.

##### *Aureez aurrekoa*

Eskaerak udalaren honako bulego hauetakoren batean aurkeztu ahalko dira (HABetan):

- Torrene 3ko Herritarrentzako Arreta Bulegoan.
- Udaletxeko Herritarrentzako Arreta Bulegoan. Foru kalea, 1.
- Andra Mariko Herritarrentzako Arreta Bulegoan. Benturillena kalea, 17 (sarrera Borreguero klinika ohiaren albotik).
- Herritarrei Arreta egiteko Romo-Areetako Bulegoan. Mesedeetako kalea, 13 (Getxo Elkartegiaren ondoan).

Ordutegiak kontsultatzeko: <http://www.getxo.eus/es/ayuntamiento/oficinas-municipales>

##### *Bide telematikoa*

Getxoko Udalaren webgunearen bitartez: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) Administrazio elektronikoaren bulegora sartu; horretarako, ziurtagiri digitalaren edo itsasontzi-jokoaren bitartez identifikatu. Identifikatu ostean, «Nire erregistro telematikoa» sartu eta aukeraketa hauek egin: «Eskaera egin», «Getxoko Udala» eta ohar-ereduan «Getxoko enplegurako laguntza-eskaera, 2018»; bertan, datuak bete, eskatutako dokumentazioa erantsi eta eskaera igorri.

Aurkezpena egin ahalko da ere, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 16.4. artikuluan ezarritako edozein tokitan.

Edozein kontsulta Getxolanen 944 660 140 telefono-zenbakira deituta edo posta elektronikoz egin ahalko da: [getxolan@getxo.eus](mailto:getxolan@getxo.eus)

Oinarri hauek nahiz eskaera-inprimakiak honako webgune honetan kontsultatu ahalko dira: [www.getxo.eus/eu/getxolan](http://www.getxo.eus/eu/getxolan)

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarriak ofizialki argitaratu ondoko egunetik aurrera aurkeztu ahalko dira eskaerak, betiere honako epe hauek betez:

- Deialdi bakarra egingo da eta eskaerak aurkezteko epe bat izango duena: oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2019ko otsailaren 8ra.

Bertan sartu ahal izango dira 2018ko ekainaren 21etik abenduaren 31ra hasitako kontratu guztiak, oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen badituzte.

- Deialdi bakoitzean jasotako eskaerarako ebazpen bakarra emango da 7. idatz-zatian arautzen den emakida prozeduraren arabera.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzen dutela esan nahi du.

#### **5. Laguntza eskatzeko egintzan aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Laguntza eskatzeko egintzan enpresak edo entitateak aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa honako hau izango da:

1. *Diru-laguntza Eskaeraren Eredua Normalizatua. I. eranskina (1. orrialdetik 5.era)*
  - 1. orrialdea: Eskaera.
  - 2. orrialdea: Enpresa edo entitateari buruzko informazioa.
  - 3. orrialdea: Hirugarrenaren alta-agiria, entitate eskatzaileak eta dagokion banku-entitateak sinatuta eta zigilatuta (bankuko datuen inprimakia laguntza helbideratzeko).



- 4. orrialdea: Zinpeko deklarazioa. Zenbait gai batzen dituen deklarazio bakarra da. Baterako deklarazioan sartutako datuen bat faltsutuko balu eskatzaileak, dagokion zehapen-araubidearen mende geratu ahalko da.
  - 5. orrialdea: Kontratazio-datuei buruzko informazioa.
2. *Enpresari edo entitateari buruzko dokumentazioa*
- a) Eskatzailea pertsona fisikoa denean: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
  - b) Pertsona juridikoak eta entitateak direnean: Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, Nortasuna Agiri Nazionalarekin batera eta eskatzailearen ordezkari-tza-ahalmenekin.
  - c) Pertsona juridikoak eta entitateak direnean, enpresa edo entitatearen osaerako eskrituren fotokopia, haiek izandako aldaketekin eta dagokien erregistroetan izena emanda.
  - d) Izaera juridiko propiorik gabeko Sozietate Zibilak direnean, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua barneratuko da.
  - e) Alta eta baje ziurtagiria Foru Ogasunak emandako Ekonomia Jardueren gaineko Zergan.
  - f) Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, eta bertan diru-laguntza eskatu duen entitateak zerga-betebeharrak egunean dituela adieraziko da.
  - g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eguneratutako ziurtagiria; bertan entitateak bere betebeharrak egunean dituela adieraziko da.
3. *Kontratazioari buruzko dokumentazioa*
- a) Diruz lagundutako lan-kontratuaren kopia, eta bertan iraupena eta lanaldia adieraziko dira.
  - b) Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.
  - c) Alta-egoeran dagoen enpresako langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emandakoa eta kontratazio-egunaren aurreko hiru hila-betetakoa (informazio horrekin plantillaren igoera garbia egiaztatu nahi da, 3.2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera).
  - d) Alta-egoeran dagoen enpresako langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emandakoa eta kontratazio-eguneko (informazio horrekin plantillaren igoera garbia egiaztatu nahi da, 3.2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera).
  - e) Gizarte Segurantzak kontratazio-egunean egindako enpresaren lan-bizitzaren txostena.
4. *Kontratutako pertsonari buruzko dokumentazioa*
- a) Kontratutako pertsonaren NANaren kopia.
  - b) Erroldaren ziurtagiria (kontratutako pertsona Getxon kontratatuta baldin bada, ez eman, ofizioz egiaztatuko baita).
  - c) Lanbiden izena emanda egotea egiaztatzen duen ziurtagiria, Enplegu Zerbitzu Publiko batek emandakoa (izena emateko epeei buruzko txostena).
  - d) Kontratutako pertsonaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emandakoa eta diruz laguntzeko eskatu den kontratuaren hasiera-egunaren ostekoa (informazio horren xedea kontratatutako pertsona langabezia zegoela egiaztatzea da).
  - e) Kontratutako pertsona kolektibo hauetako batean baldin badago:
    - a. DSBEaren titularrak edo onuradunak: hori egiaztatzen duen Lanbidek emandako dokumentua.
    - b. 35 urtetik beherakoak.



## 6. Gabeziak konpontzea

Diru-laguntza eskaerak edo justifikazioak oinarri hauetan eskatutako baldintzak batzen ez baditu, edo harekin batera eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 68. artikuluan ezarritako betez, interesdunei ondorengoa errekerituko zaie: 10 egun baliodunetan, akatsak konpon ditzaten edo haiekin batera dagozkien agiriak aurkez ditzaten, adieraziz, hala egin ezean, beren eskaerari uko egiten zaiola iritziko dela, beste izapiderik gabe artxibatuz, legezko testu beraren 21.1. artikuluan ezarritako ondorioekin.

## 7. Diru-laguntza emateko prozedura eta diru-laguntza emateko irizpide objektiboak

Lehia askeko araubidean emango dira laguntzak, oinarri hauetan xedatutako eskakizunei jarraikiz, publikitate, lehia eta objetibotasun printzipioak bermatuta.

Deialdi bakarra egingo da eta eskaerak aurkezteko epe bat izango duena: oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2019ko otsailaren 8ra. Bertan sartu ahal izango dira 2018ko ekainaren 21etik abenduaren 31ra hasitako kontratu guztiak, oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen badituzte.

Izen-emate bakoitzean laguntza-eskaerak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera ebatziko dira, baldin eta behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago, eta baldin eta izen-emate bakoitzean diruz lagundutako kontratuen %40 emakumeekin egin dela betetzen bada eta Getxoko Udaleko aurrekontuetan xede horretarako kontsignatutako aurrekontu kredituaren mugaraino.

## 8. Laguntzaren zenbatekoa

Itzuli beharrik gabeko ondorengo zenbatekoko laguntza finkatzen da, kontratazio-aldiaren arabera:

8.1. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da sortzen den lanaldi osoko lanpostu berri bakoitzeko, 3 hilabete edo gehiago irauten duena. Zenbateko hori 4.500 eurokoa izango da baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira: DSBEaren titularrak edo onuradunak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (kontratazioaren aurreko 540 egunetan Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak, baldin eta denboraldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira) eta 55 urtetik gorakoak.

8.2. Gehieneko laguntza: 6.000 euro 6 hilabeterako edo gehiagorako lanaldi osoko lanpostu berri bakoitzeko.

Zenbateko hori 9.000 eurokoa izango da baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira: DSBEaren titularrak edo onuradunak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (kontratazioaren aurreko 540 egunetan Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak, baldin eta denboraldi horretan gutxienez 360 egunez langabezian egon badira) eta 55 urtetik gorakoak.

8.3. Hiru hilabete baino gehiagoko eta sei hilabete baino gutxiagoko kontratuak kontratuak irauten duen epearekin proportzionala izango den gehieneko laguntza jasoko dute.

- Diru-laguntzaren azken zenbatekoak ezin du izan kontratatutako pertsonen soldatako eta gizarte-segurantzako kostuen %75 baino handiagoa, kontratu-amaierarengatik eman beharreko kalte-ordainak eta enpresak ordaindu behar duen Gizarte Segurantzaren kuota barne. Lehen adierazitako kolektiboetako pertsonak kontratatzen direnean, diru-laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan soldatako eta Gizarte Segurantzako kostuen %100 baino handiagoa, kontratu-amaierarengatik eman beharreko kalte-ordainak eta enpresak ordaindu behar duen Gizarte Segurantzaren kuota barne.
- Lanaldi partzialeko kontratuak eta prestakuntzarako nahiz ikasketarako kontratuak ez dira diruz lagunduko.



- Kontratuaren iraupena zenbatze aldera, aintzat hartuko dira horren luzapenak, betiere hasierako kontratua 3 hilekoa bada gutxienez.
- Enpresa bakoitzak gehienez bi kontraturentzako diru-laguntza jaso dezake. Diruz lagundutako kontratazio bat egin aurretik 2 edo langile gutxiago duten enprese-tarako (langile autonomoak barne), gehienez kontratu 1 lagundu ahalko da diruz.
- 2019ko ekainaren 30etik aurrerako soldata-kostuak ez dira diruz lagunduko, inolaz ere.

## 9. Baliabide ekonomikoak

Laguntza hauek osatzen dituzten funtsak Getxoko Udalak 2017an helburu honetarako duen aurrekontuaren mende daude: hala, 253.565,50 euro bideratuko ditu horretarako, eta lehenengo deialdian erabili ahalko dira.

Laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kofinantzatzen ditu enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdien babesean (2018ko ekainaren 20ko EHAA, 118 zenbakia), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren Emakidaren Ebazpenarekin, 2018ko ekainaren 13koa.

## 10. Beste laguntza batzuekin lehiatzea

Oinarri hauetan araututako laguntzak honako hauekin ez dira bateragarriak izango: kontzeptu eta helburu beragatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuak emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu (betiere kostua gainditzen ez bada).

## 11. Izapidea eta ebazpena

11.1. Oinarri hauetan jasotako laguntzak emateko organo-izapidegilea Getxolan, Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegua Zerbitzuak izango da; hari egokituko zaio aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzea, eta beharrezkoa iruditzen zaion nahi beste dokumentazio edota informazio eskatu ahalko du behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

11.2. Tokiko Gobernu Batzordea izango da ebazteko organo eskuduna, aurreko paragrafoan aipatutako organo izapidegilearen proposamenari jarraiki. Nolanahi ere, aipatutako organoak proposatuta, Alkatearen eskumena izango da 30.000 euro baino txikiagoko diru-laguntzak ebaztea, ekainaren 13ko 2541/2015 Alkatetza Dekretuan xedatutakoari jarraiki.

Emateko proposamena diru-laguntza ematen duen organoari egingo dio organo kolegiatuak organo uztailaren 2ko 2897/2015 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Diru-laguntzen inguruko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa kontuan hartuta. Ondorengoek osatuko dute.

11.3. Ebazpena emateko 2 hilabete izango dira gehienez, eskaerak aurkezteko epe bietako bakoitzerako 7. artikuluan ezarritako aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erki-deari buruzkoaren 25. artikuluan xedatutakoa betez, ebazpena emateko jarritako epea igarota hura enpresa edo entitate interesdunari jakinarazi gabe, eskatutako laguntza ezesten dela iritziko da.

Onuradunen batek berariaz uko egiten badio, Diru-laguntzen erregelamenduaren 63.3 artikuluari jarraituko zaio (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa). Ondorio horietarako, berariaz uko egiten dela iritziko da oinarri hauetan finkatutako baldintzaren bat betetzen ez bada.

**12. Diru-laguntza ordaintzea**

Laguntzak jasotzeko bi ordainketa egingo dira.

1. %70 organo eskudunak emandako laguntzak ebatzi ostean.
2. Gainerako %30 oinarri honetan araututako kontratazio-baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzen denean ordainduko da, 16. atalean adierazitako justifikazioaren bidez.

**13. Ikuskapena**

Getxolan, Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuak egokiak iruditzen zaizkion ikuskapen eta egiaztatzeak egin ahalko ditu diruz lagundutako ekintzei dagokienez, eta enpresa edo entitate onuradunek eskatzen zaien behar beste informazio osagarria eman beharko dute.

**14. Diru-laguntzen baldintzak aldatzea**

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok emakidaren ebazpena aldatu ahalko du, baldin eta arau honetan ezarritako gutxieneko baldintzak babesten badira haren onuradun izateko. Ondorio horietarako, organo eskudunak aldatetarako dagokion ebazpena emango du, eta bertan emandako diru-laguntzen zenbatekoak berriz doituko dira.

**15. Entitate onuradunen betebeharrak**

1. Laguntza hauen enpresa, profesional eta entitate onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntzaren emakida jakinarazten den komunikazioaren berri izaten denetik eta hamabost eguneko epean, entitate onuradunek berriaz hari idatziz uko egiten ez badiote, hura onartutzat joko da.
- b) Laguntza honen xede betetzea, 1. atalean adierazitakoa.
- c) Getxoko Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduerak burutzea, bai eta kontroleko organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontroleko beste edozein ere, estatukoak nahiz erkidegokoak, aurreko jardueren egikaritzean eskatutako behar beste informazio emanez.
- d) Kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta hala badagokio behar bezala ikuskatutako gainerako agiriak izatea, onuradunari aplikagarriak zaizkion merkataritza nahiz sektoreko legeriak eskatutako baldintzetan, bai eta laguntzen oinarri arautzaileek eskatutako behar beste kontabilitate-egoerak eta berriazko erregistroak ere, egiaztapen eta kontroleko ahalmenak zuzen egikaritzen direla bermatzeko helburuarekin.
- e) Getxoko Udalari jakinaraztea, laguntza horien xede diren jarduerak finantzatutako dituzten laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratzea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster idatziz egin beharko da.
- f) Udalari diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein egoeraren aldaketaren berri (objektiboa nahiz subjektiboa) ematea.
- g) Getxolan, Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuari beharrezkoa den nahi beste informazio edo dokumentazio osagarri ematea laguntzaren eskaera ulertu eta ebaluatzeko.

2. Laguntza horien entitate onuradunek berriaz ezarritako betebeharrak izango dituzte:

- a) Laguntza horien xede diren kontratazioak edo kontratazioek enpresa edo entitate onuradunaren plantillan igoera garbia dakartzatela bermatzea, kontratatutako pertsonak heldu aurreko 3 hilabeteetan enpresan zegoen batez besteko plantillarekin alderatuz.



- b) Langilearen lan-egonkortasunari eustea laguntza-eskaeran ezarritako aldian zehar.

Kontratua eten edo iraungitzen denean, ondorengo arrazoiak ezingo zaizkio enpresa edo entitate kontratatzaileari egotzi.

- Enpresari egotzi ezin zaizkion arrazoitzat jotzen dira, 49. artikularen 1.d) eta 1.e) ataletan jasotakoak, eta langileen estatutuaren 40. eta 45. artikuluetan (1.a) eta 1.b) atalak izan ezik), 52. eta 54. artikuluetan jasotakoak (azken bi kasu horietan, baldin eta langileak ez badu kontratuaren iraungitzea errekurritzen, edo, alderantziz, hura aginpide eskudunak egokitzen jotzen badu).
- Langilearen baja ere ezingo zaio enpresari egotzi proba-aldia ez gainditzeagatik.

Hori horrela, kontratua eteteko eta/edo suntsiarazteko arrazoiak kontratatutako pertsonari egotzi badakizkioke edo proba-aldia gainditu ez duelako sortu badira, pertsona hori ordeztu egin beharko da (hura ordezteko gehineko epea 21 egun naturalekoa izango da) 2 idatz-zatian jasotakoa betetzen da diru-laguntza hasi zuen pertsonaren kontratazio-aldiari gehitu eta diru-laguntzaren zenbatekoa ezarri zuen aldira iristeko aldirako, 8 idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz. Diru-laguntzaren zenbatekoa mugatu zuen epea bete ezin izatekotan, kontratazio-aldi errealearen hainbanaketa bat egingo da.

Kontratutako pertsona 21 egun naturaleko epean ez badute aldatzen, enpresak kontratuko bete gabeko epeari dagokion diru laguntzaren zati proportzionala ordaindu beharko du.

Kontratu amaieraren kausak enpresari leporatu ahal izatekotan, emandako diru laguntza osorik ordaindu beharko du.

#### **16. Diru-laguntza justifikatzea**

Emandako diru-laguntzen justifikazioa gehienez hilabeteko epean egin behar da, diruz lagundutako aldia amaitzen denetik zenbatuta. Horretarako, honako dokumentazioa eman beharko da:

- a) II. eranskina, beteta.
- b) Honako honi buruzko dokumentazioa:
  - Laguntzaren xede den aldian zehar diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eta horiek kobratu izanaren bankuko frogagiria (edo bi aldeek sinatutako nomina).
  - Langileen zerrenda nominala edo TC1 agiria (edo bankuko ordainagiria) eta langileen zerrenda nominala edo TC2 agiria eta beraien ordainagiriak.
  - Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, eta bertan diru-laguntza eskatu duen entitateak zerga-betebeharrak egunean dituela adieraziko da.
  - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren eguneratutako ziurtagiria; bertan entitateak bere betebeharrak egunean dituela adieraziko da.
  - Zinpeko deklarazioa (Eskaeraren Eredu Normalizatuaren 4. orrialdea).

#### **17. Laguntzak itzultzea**

Jasotako zenbatekoak itzuliko dira, bai eta diru-laguntza ordaintzen denetik dagozkion legezko interesak eskatzea ere, haien entitate onuradunek oinarri hauetan, emakida-ebazpenean eta aplikaziozkoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenean; nolahi ere, egokiak diren ekintzak errespetatuko dira bete ez izanaren ondorioz.

Itzultzeko kasutzat joko dira:

- Diru-laguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzarik izan gabe.
- Diru-laguntza emateko zegoen helburua ez betetzea.
- Justifikazioaren betebeharra ez betetzea.
- Emakida dela-eta, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.





- Kontrol-jarduerak ukatzea edo haiei eragozpenak jartzea.
- Diru-laguntzak garatutako jardueraren kostua gainditzea.

**18. Diru-laguntzen publizitatea**

Emandako diru laguntzak diru laguntzen datu base nazionalera igorriko dira Diru laguntzei buruzko Legearen 20. artikuluan ezarritakoa betez. Gainera, haiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

**19. Ordezko araubidea**

Oinarri hauetan ezarri gabeko kasuetan, aplikaziozkoak izango dira: Getxoko Udalaren Diru-laguntzen emakida arautzen duen Udal Ordenantza, Udalbatzak 2004ko abenduaren 30ean onartutakoa eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2005eko urtarrilaren 24an argitaratutakoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntza Orokorrei buruzkoa eta haren garatzeko araudiari buruzkoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeek buruzkoa.

**20. Datu pertsonalak babestea**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrari(EB 2016/679) jarraikiz, eta 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, Europako araudiari egokitu artean, Getxoko Udalak eskatzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatu eta Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen informazio-sisteman sar daitezkeela jakinarazten du. Datu horiek sailik erabiliko dira enplegua sustatzeko tokiko jarduerentzako laguntzak kudeatzeko. Horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga ahal izango zaizkie edo komunikatu ahal izango zaizkie, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoari jarraikiz. Interesdunek erabili ahal izango dituzte datuetara sartzeko, horiek ezeztatze, zuzentze eta horien aurka egiteko eskubideak.


**21. Zehatzeko araubidea**

Arau-hauste eta zehapenen araubidea, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntza Orokorrei buruzkoen, IV. Tituluan eta EAeko Herri Administrazioen Zehapen Ahalmenari buruzko 2/1998 Legean, otsailaren 20koa, ezarritakoa izango da.

Oinarri hauetan beren-beregi jaso ez diren beste kontu guztietarako, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzak emateari buruzko Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren ebazpenena xedatutakoa bete beharko da (2018ko ekainaren 20ko EHAA, 118 zenbakian, argitaratu zen).

Getxon, 2018ko urriaren 23an.—Ogasun, Ekonomia-sustapen eta Giza baliabideetako Zinegotzia, Ignacio Uriarte Gorostiaga



	<b>2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)</b>
---	--

I. ERANSKINA  
**ESKAERA-EREDU NORMALIZATUA**

Izen-abizenak:	NANA:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Getxoko Udalak langabeen kontratazioa sustatzeko helburuarekin ezarritako diru-laguntzen deialdiari jarraikiz,

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:**

1. Ezagutzen eta onartzen dituela aipatutako laguntzen deialdian ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen duela enpresak edo entitateak eskaera-formularioetan jarritako datuak egiazkoak direla.
2. Langabetu bat edo batzuk kontratatu dituela, oinarrietan ezarritako baldintzen arabera.
3. Lortutako diru-laguntzaren kargura egindako gastuak eta ordainketak egiaztatzen dituzten dokumentazioa, dokumentu elektronikoak barne, entitate onuradun horrek izango dituela, dagokion administrazioaren egiaztatze-eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeen bitartean.
4. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (EB 2016/679) xedatutakoa betetzeko helburuarekin, eta 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, Europako araudi berrira egokitu bitartean, onartzen du bere datuak modu automatizatuan tratatzea eta Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen informazio-sisteman sartzeari, enplegua sustatzeko tokiko jarduerentzako laguntzak kudeatzeko. Horiek laga ahal izango dira edo adostasuna komunikatu ahal izango da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoari jarraikiz.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dio Getxoko Udalari:

Onartu dezala eskaera eta eman dakiola dagokion laguntza, goian zehaztutako laguntzen deialdiari jarraikiz.

Getxon, 201...ko.....(a)ren ...(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

Sarrerako zigilua:



**2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)**

**ENPRESARI EDO ENTITATEARI DAGOKION INFORMAZIOA**

Izen-abizenak:	NANa:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

**Enpresaren edo entitatearen egoitza soziala**

Kalea eta zenbakia:

Udalerria:

Posta kodea:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Faxa

http://

**Helbide osoa, jakinarazpenetarako (bete soilik ez bada aurrekoa)**

Izena

Kalea eta zenbakia:

Udalerria:

Posta kodea:

Posta elektronikoa:

Telefonoa:

Faxa:

**Enpresaren jarduera:**

Ekonomia-jardueren gaineko zerga nagusia:

Deskribapena:

Altaren data:



2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)

HIRUGARRENEN ALTA-DOKUMENTUA

Izen-abizenak:	NANA:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

ESKATU DU DIRU-LAGUNTZA HONAKO KONTU KORRONTE - AURREZKI-KONTUAN SARTZEKO

Kontuaren titularraren izen-abizenak:
Bankua edo kutxa:
Sukurtsala:

IBAN		Erakundearen kodea	Sukurtsalaren kodea	KZ	Kontu korronte/aurrezki-kontuaren zk.
E	S				

Azpien sinatzen duenak bere gain hartzen du emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Getxon, 201...ko.....(a)ren ...(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

Sinadura eta banku-erakundearen zigilua



**2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)**

ZINPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak:	NANA:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

HONAKO ZINPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU (X jarri):


- 1.) Enpresetarako laguntzen udal programaren oinarriak eta deialdia onestea, Getxo udalerrian 2018 urtean enpleguaren sorrera sustatzeko. Laguntza horiek enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren barne kokatuta daude (2018ko ekainaren 20ko EHAA).
- Enpresa edo entitate onuradunaren titularrak edo gehieneko bazkideek eta enpresaren gobernu-organoaren kideek ez dute bigarren mailarainoko odolkidetasun-loturarik edo afinitaterik, eta ez dute elkarbizitza-unitaterik osatzen, diruz lagundu beharreko kontratazioaren subjektua den pertsonarekin.
- Ez dagoela diru-laguntzak itzultzeko edo zigortzeko prozeduretan sartuta.
- Ez duela zerga-zorrik Getxoko Udalarekin. Udalak ofizioz egiaztatuko du.
- Ez du zigor penalik edo administratiborik, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukerarik kentzen dionik, eta ez du horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, 4/2005 Legeari, otsailaren 18koari, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzkoari, jarraikiz sexuagatiko bazterkeriaren ondorioz sortutakoak barne.
- Laguntza-eskaera honez gain, EZ duela kontratazio honetarako laguntzarik eskatu edo jaso, eta administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek kontzeptu eta helburu berarekin emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntzarik EZ duela eskatu edo jaso.
- Horrez gain, konpromisoa hartzen du organismo honi idatziz jakinarazteko kontratazio berberagatik erakunde publiko edo pribatuetan egindako diru-laguntzen eskaerak.
- Getxoko Udalari baimena ematen dio deialdi honen baldintzak betetzeko beharrezko dokumentazioa Getxoko Udalarekin, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin egiaztatzeko.

Eta egoki den lekuan ager dadin, idazki hau sinatzen dut.

Getxon, 201...ko.....(a)ren ...(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua



 <p><b>Getxo</b> Ekonomia - Sustapena Promoción económica</p>	<p><b>2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)</b></p>
--	---

**KONTRATAZIOAREN DATUAK**  
(Eskatutako kontratuen kopurua adina kopia aurkeztu)

Izen-abizenak:	NANa:
Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

**KONTRATATUTAKO PERTSONARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Izen-abizenak:	
NAN/IFZ:	Jaiotze-data:
Helbidea:	Udalerrria eta posta-kodea:

Postua:	
Kontratuaren hasiera-data:	Kontratuaren amaiera-data:
Diru-laguntza eskatzeko kontratu mota: <input type="checkbox"/> 3 hilabete. <input type="checkbox"/> 6 hilabete. <input type="checkbox"/> 3 eta 6 hilabete artean.	Baloetsitako hileko kostua (GS eta kalte-ordainak barne)
Hitzarmen aplikagarria:	

Honako kolektibo honetako pertsona: <input type="checkbox"/> Emakume langabea. <input type="checkbox"/> Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra edo onuraduna. <input type="checkbox"/> <35 urte. <input type="checkbox"/> Iraupen luzeko langabeak. <input type="checkbox"/> 55 urtetik gorakoa. <input type="checkbox"/> Aurreko bat ere ez.
Getxon, 201...ko.....(a)ren ...(e)(a)n.
Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

Kontratatutako pertsona Getxon erroldatuta baldin badago, adierazitako pertsonaren kontratazio-datuen bitartez baimena ematen zaio Getxoko Udalari bere erroldatze-datuak eskatzeko, baita laguntza hauek kontratatze xedez horiek tratatzeko baimena ere.

Kontratatutako pertsonaren sinadura .....



2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)

II. ERANSKINA
AMAIERAKO JUSTIFIKAZIOA
(Eskatutako kontratuen kopurua adina kopia aurkeztu)

Form with fields: Izen-abizenak, NANa, Honen ordezkari moduan: Sozietatearen izena, Izen komertziala, IFZ/IFK:

KONTRATAZIOAREN DATUAK

Form with fields: Kontratutako pertsonaren izen-abizenak, Kontratuaren hasiera-data, Kontratuaren amaiera-data, Lanaldiaren %, Kontratuaren guztizko kostua (gehienez ere 6 hilabete):

Table with 2 columns: Nominak (Hila, Zenbatekoa (Sortutakoa, guztira))

Table with 4 columns: Enpresaren kargurako aseguru sozialak (Hila, Kontingentzien oinarria (% tasa Kotizazioa, Enpresaren kargurako kuota), Hobariak)

Eta egoki den lekuan ager dadin, idazki hau sinatzen dut.

Getxon, 201...ko.....(a)ren ...(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua



**2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)**

**ENPRESAK EDO ENTITATEAK LAGUNTZA ESKATZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA****1. Diru-laguntzaren eskaera-eredu normalizatua. I. eranskina (1-5 orrialdeak)**

- 1. orrialdea: Eskaera.
- 2. orrialdea: Enpresari edo entitateari dagokion informazioa.
- 3. orrialdea: Hirugarrenen alta-dokumentua, entitate eskatzaileak eta dagokion banku-erakundeak siantua eta zigilatua (bankuko datuen inprimakia, laguntza helbideratzeko).
- 4. orrialdea: Zinpeko adierazpena. Adierazpen bakarra da, hainbat kontu hartzen dituen. Eskatzaileak adierazpen bateratuan jasotako datu faltsuren bat eman badu, dagokion zehapen-arabidearen mende egon daiteke.
- 5. orrialdea: Kontratatzaileari dagokion informazioa.

**2. Enpresari edo entitateari dagokion informazioa**

- a) Eskatzailea pertsona fisiko bat baldin bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan: identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta eskatzailearen ordezkapen-botereekin batera.
- c) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan, enpresa edo entitatearen eratzeko eskrituren fotokopiak, gerora egindako aldaketekin eta dagozkion erregistroetako inskripzioekin.
- d) Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak sinatutako kontratu pribatua ere aurkeztuko da.
- e) Foru Ogasunak igorritako ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta- eta baja-ziurtagiriak.
- f) Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatuko duena diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak egunean dituela.
- g) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak bere betebeharrak egunean dituela.

**3. Kontratazioari buruzko dokumentazioa**

- a) Diruz lagundutako lan-kontratuaren kopia, eta bertan iraupena eta lanaldia adieraziko dira.
- b) Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.
- c) Alta-egoeran dagoen enpresako langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emandakoa eta kontratazio-egunaren aurreko hiru hilabetetako. (Informazio honen xedea langileen igoera garbia egon dela egiaztatzea da, 3.2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera).
- d) Alta emanda dagoen enpresako langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emandakoa eta kontratazio-eguneko (informazio horrekin plantillaren igoera garbia egiaztatu nahi da, 3.2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera).
- e) Gizarte Segurantzak kontratazio-egunean egindako enpresaren lan-bizitzaren txostena.

**4. Kontratatutako pertsonari buruzko dokumentazioa**

- a) Kontratatutako pertsonaren NANaren kopia.
- b) Erroldaren ziurtagiria (kontratatutako pertsona Getxon kontratatuta baldin badago, ez eman, ofizioz egiaztatuko da).
- c) Lanbiden izena emanda egotea egiaztatzen duen ziurtagiria, Enplegu Zerbitzu Publiko batek emandakoa (izena emateko epeei buruzko txostena).
- d) Kontratatutako pertsonaren lan-bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emandakoa eta diruz laguntzeko eskatu den kontratuaren hasiera-egunaren ostekoa (informazio horren xedea kontratatutako pertsona langabezian zegoela egiaztatzea da).
- e) Kontratatutako pertsona kolektibo hauetako batean baldin badago:
  - a. DSBEaren titullarrak edo onuradunak: hori egiaztatzen duen Lanbide emandako dokumentuak.





**2018. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK. DIRU-LAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA (2018KO EKAINAREN 20KO EHAA)**

**JUSTIFIKATZEKO ETA AMAIERAKO %30AREN ORDAINKETARAKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

(Gehienez hilabeteko epean aurkeztu beharko da, diruz lagundutako aldia amaitzen denetik zenbatuta)

1. II. eranskina beteta.
2. Honi dagokion dokumentazioa:
  - a) Laguntzaren xede den aldian zehar diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eta horiek kobratu izanaren bankuko frogagiria (edo bi aldeek sinatutako nomina).
  - b) Langileen zerrenda nominala edo TC1 agiria (edo bankuko ordainagiria) eta langileen zerrenda nominala edo TC2 agiria eta beraien ordainagiriak.
  - c) Foru Ogasunaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatuko duena diru-laguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak egunean dituela.
  - d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eguneratutako ziurtagiria, egiaztatzen duena entitateak bere betebeharrak egunean dituela.
  - e) Zinpeko adierazpena (eskaera-eredu normalizatuaren 4. orrialdea).